

# Eskualdeko inauteriak



## LIZARTZA

### Otsailak 22, ostirala

**14:15.** Eskolak antolatuta mozorro festa. Ondoren, kalejira.

### Otsailak 23, larunbata

**07:00.** Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. Diana abestuz hasiko dute inauteria.

**07:30.** Puska-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospeletik.

**10:00.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

**12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Joxe Mariko aparkalekutik.

**13:30.** aldera. Inauterietako parte hartzaile guztiek kalejira. Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denek elkarrekin bazkalduko dute herriko frontoian.

**18:00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dituzte, kalejiran plazara jaisteko. Bertan hainbat sagardotegitako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

### Otsailak 24, igandea

**11:00.** Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketako plazan.

**12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska

biltzen, gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera.

**Ondoren.** Lizartzako Inauteri Dantzak plazan.

**14:00.** Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan, txarangak alaiturik. Ondoren, zozketak eta Txan Magoaren *Inpermutik natorren artista bat naiz niikuskizun berria.*

**19:30.** Plazan ijitoa errez, inauterien amaiera.

## BERASTEGI

### Otsailak 22, ostirala

**14:45.** Eskolako desfilearen hasiera, herrian zehar.

**16:00.** Desfilearen amaiera, eskola atarian dantza eginez. Jarraian txokolate jatea, guraso elkartearen eskutik.

**17:30.** Haurren dantza, trikiti eta txistu emanaldia.

**19:00.** Pintxo pote mozorrotua, armairuko trapu zaharrekin.

### Otsailak 23, larunbata

**11:30.** Hamaiketako plazan, Urepele elkartearen eskutik.

**Ondoren.** Altxorraren bila jolasa, gaztetxo eta helduentzat,

**Bazkal aurretik.** Mozorroen desfile/koreografia.

**14:00.** Herri bazkaria, norberak etxetik

jakiak ekarrita. Antolatzaileek ogia, edaria, kafea eta kopak jarriko ditu. Izen-ematea udaletxean egin beharko da, aurrez.

**18:00.** Matraka elektro-txaranga tabernaz taberna.

**Iluntzean.** Luntxa eta DJ Josu Rodriguez Urepele elkartearen.

## AMEZKETA

### Martxoak 2, larunbata

**08:00.** Udaletxe azpian elkartu eta Bedaioko eta Amezketako baserrietan ibiliko dira.

### Martxoak 3, igandea

**08:00.** Udaletxe azpian elkartu, eta Ugartera joango dira. Gero, Zubillaga auzokora joango dira eta, azkenik, Amezketako kaleak pasatuko dituzte.

## ABALTZISKETA

### Martxoak 3, igandea

**08:00.** Baserrietatik barrera hasiko dute ibilbidea.

**11:00-11:30.** Abaltzisketako herrigunera iritsiko dira. Udaletxean eta etxeetan dantzatu eta gero, baserrietako bideari ekingo diote.